



PROIEKTUAK
2000
2020ko

la jakin gabe

EUROPA

HEMEN EGON DA

Azken hogeit urteotan, Europa hemen egon da, Araban bertan, askotariko proiektuen bidez. Zure enpresa abiarazten lagundu dizu, teknologiarako sarbidea erraztu dizu, lanera joateko bideen sarea hobetu du, gure habitata zaindu du aisialdian naturaz goza dezazun... **Sartu, eta ikusi zein hurbil eduki duzun.**




Europar Batasuna
Unión Europea

araba  álava
foru aldundia diputación foral



AURKIBIDEA

- 4 | Berrikuntzarako eta enpresak sortzeko laguntza
Enpresa-sustapenerako ekintzak
- 5 | Estaturaz haraindiko lankidetzak guneko atlantikoan
- 6 | Kultur-azpiegiturak
- 7 | Naturaguneen babesa eta birsorkuntza
Bide Berdeen egokitzapena
- 8 | Bideko azpiegiturak
- 9 | Hondakinen kudeaketa
Urak garbituz
- 10 | Ingurumenari laguntzeko programak eta klimaren aldeko ekintza
- 11 | Mugaz bestaldeko lankidetzak
Ikerketa eta berrikuntza
- 12 | Teknologia berrietara egokitzeko laguntza
Ikasgela telematikoa: gaitzuntza teknologikoa landa-munduan
- 13 | Langileak eta langabetuak prestatzeko laguntza
Urritasunen bat duten eta gizarte bazterketarako arriskuan dauden pertsonak gizarteratzea eta laneratzea
- 14 | Europe Direct Araba: Europari buruzko informazio-bulegoa



Europako Gaiterako Zerbitzua.
Arabako Foru Aldundia.



Europa hemen egon da. Zugandik oso hurbil, baina, beharbada, ez duzu jakin. Zure egunerokotasunean, zure ibilaldietan, lana bilatu duzunean, zure gaurkotze teknologikoan, zure enpresa sortzean, naturan egiten duzun aisialdian...

Europar Batasuna elkarte ekonomiko eta politikoa da, eskualdeen garapen ekonomikoari laguntzen dioten zenbait finantzatresna dituen. Funts handiek, hala nola, Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsak (EGEF), Europako Gizarte Funtsak (EGF), Kohesio Funtsak edo Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF), bai eta batasuneko programek eta ekimenez ere, Europaren hazkuntzari eta kohesioari laguntzen diote.

2000-2020ko aldiari, Arabako Foru Aldundiak kudeatu ditu Europar Batasunetik etorri diren **66 milioi**tik gorako euroak (nekazaritzako funtsak kontuan hartu gabe), Araban egin diren ekimen ugariaren bidez.

Hementxe aurkezten dizkizugu proiektu adierazgarrienetako batzuk:

Zure enpresari ekitea edo berori berritzea zein sortzea erabaki zenuenean



EGEF

Berrikuntzarako eta enpresak sortzeko laguntza

Programak:
Promeco, Pronue, Saiatu,
Ausartu, Álava Innova eta
Emprender en Álava.

- ◇ Zure enpresaren lehiakortasuna hobetzeko orduan lagunduz, proiektu berritzaile horiei laguntzeko programen bitartez, aipatu proiektuetan sinesten baituzu, eta horien alde egiten.
- ◇ Zure negozioari ekiteko eta berori eratzeko abenturan lagunduz.
- ◇ Zure ideia berri eta berritzaileak balioetsiz; hazteko indarra duten eta enpresako jarduerak dibertsifikatzen laguntzen duten horiexei balioa emanez, alegia.


EGF

Arabako Foru Aldundiaren eskutik, Ajobask-Arabako Enpresari Gazteen Elkartearen, AEPEE-Arabako Emakume Profesionalen eta Enpresarien Elkartearen, SEA-Arabako Enpresariak-en eta Arabako Merkataritza eta Industria Ganberaren laguntzarekin.

Enpresa-sustapenerako ekintzak

- ◇ Zure enpresa-bokazioa piztuz; bai zure proiektua sustatuta, bai zure enplegua sortzera bultzatuta.
- ◇ Enpresa nazioartekotzeko eta berritzeko jautzia ematen lagunduz.

Zure lurraldea
ezagutzen
hasi zinenean



m Gure ikono turistikoetako batera egin zenuen ibilaldian;
hain zuzen ere, Ananako Haran Gazira egindakoan


INTERREG

Estatuz haraindiko lankidetzaz gune atlantikoan

- ◇ Daukaguna balioetsiz eta Atlantikoko beste gatzaga batzuekiko harremanak eraikiz.
- ◇ Kide europarrekin indarra batuz, tokiko biztanleei aukerak eskaintzeko eta Añanako Haran Gazia sustatzeko xedez.


GATZA proiektua,
"Atlantikoko gatzaz:
Atlantikoko gatzaz
nortasunaren balioa
handitzea".

ECOSAL ATLANTIS
proiektua, "Ekoturismoa
Atlantikoko Gatzazetan:
garapen integral eta
jasangarrirako estrategia".






m Artiumen eta Santa Maria katedralean gozatzean



Kultur-azpiegiturak

- ◇ Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa eraikiz, bizi zaren tokitik hurbil goza dezazun erakusketen eta kultur-jardueren gune batez, eta beste pizgarri bat egon dadin bisita egiten digutenentzat.
- ◇ Santa Maria katedralaren oinarriei eutsiz, berori birgaitzeko proiektuen bidez. Tenplua zaharberrituz eta bere historia berreskuratuz, katedrala eta horren ingurunea biziberritze aldera.





Bizikletaz zein oinez egiten dituzun ibilaldietan

EGEF

Naturaguneen babesa eta birsorkuntza

- ◇ Zadorrako urtegien ertzetan dagoen bititza mota ugaria babestuz, ibilaldia ahaztezina izan dadin.
- ◇ El Torco antzinako harrobia lehengoratzuz, bai eta Arabako erdialdean eta hegoaldean higadura-arriskua duten gure mendietako baso-masa berreskuratuz ere, iraganeko zerbait bihur ez dadin mendian ibiltzea, zuhaitz baten azpian esertzea edo naturan galtzea.
- ◇ Lurraldearekiko babesean lagunduz baso-suteen prebentziorako jokabideen bitartez.



EGEF

Bide Berdeen egokitzapena

- ◇ Ingurune arabarreko bide erosoetan pedalei eraginez. Bide horiek bizikletaz edo oinez egiteko daude pentsatuta, modu jasangarrian, ingurumena zein landa-eremua errespetatuz. Aldi berean, dauzkagun balio naturalak nahiz kulturalak eta paisaia-multzoak aurkituz.
- ◇ Modu turistikoan, gure lurraldea bultzatzen lagunduz; bai igorpen gutxiako jarduerak eginez, bai garraio jasangarriak sustatuz.



 Nerbioiko Parke Lineala
(Bide Berdea).

Lanerako eta
etxerako bidean



EGEF

Bideko azpiegiturak

- ◇ Inguruarekin konektatzen eta lotzen zaituzten Arabako errepideetako tartekak egokituz, etxera, lanera eta lagunengana zein familiarengana eramaten baitzaituzte errepideok.
 - ◇ N-102aren egokitzapena.
 - ◇ Gasteiz hiriaren eta Jundizko zein Goiaingo industrialdeen arteko lotura.
 - ◇ Hobekuntzak N-240an, Gamarra-Miñaoko tartean (Arabako Parke Teknologikoan) eta saihesbidearen eraikuntza Miñan.



Zure hondakinak
utzi eta birziklatze-
prozesua gbiaraz-
tean horrela



EGEF

Hondakinen kudeaketa

- ◇ Are berdeago egingo gaituzten azpiegiturekin erraztuz eta sustatuz birziklapena. Gasteizen sortzen ditugun hiri-hondakinak kudeatuz Jundizko bi instalazio berritan: hondakinen konposta eta ontzien sailkapena. Horrela, hondakin organikoen aprobetxamendua hobetzen dugu, eta edukiontzi horian uzten ditugun ontzi arinen osagaiak sailkatzen.

KOHESIO




Ingurumen-ingurune
osasungarriagoan bizitzean

EGEF

Urak garbituz

- ◇ Hondakin-uren biltzaileak eta garbitzaileak jarriz Arabako Errioxan (Guardian, Eltziegion, Lantziegion, Navaridasen, Lezan eta Lapuebla de Labarcan), Araian, Bernedon eta Iruña Okan; bai zuzentaraua betetzeko, bai gure industriak, nekazaritzak, abeltzantzak eta guk geuk lagundu dezagun ingurune garbiagoa edukitzen.

KOHESIO



Green lurraldean
bizi zarela
esatean
lagunartean



LIFE
LIFE+



Ingurumenari laguntzeko programak eta klimaren aldeko ekintza

- ◇ Gure berdetasunari eusteko lagunduz; gure bisoiak, arranoak, hezeguneak, haritz-basoak... zainduz.
 - ◇ LUTREOLA SPAIN, LIFE BONELLI eta AQUILA-a-LIFE proiektuak, mehatxupean dauden espezieak kontserbatzeko eta berreskuratzeko.
 - ◇ PRO-IZKI proiektua, ameztiak eta bertako habitatak zein espezieak kudeatzeko.
 - ◇ TREMEDAL proiektua, penintsularen iparraldeko hezegune kontinentalak kudeatzeko eta lehengoratzeko.
 - ◇ OREKA MENDIAN proiektua, euskal mendietako larre-habitatak kontserbatu eta kudeatzeko.
 - ◇ LIFE URBAN KLIMA 2050 proiektua, Klima Aldaketako Euskadiko Estrategia (KLIMA 2050) hiri-eremuan hedatzeko.



Caicedo Yuso eta Arreoko lakua.
LIFE TREMEDAL proiektua.




INTERREG

Mugaz bestaldeko lankidetzak

- ◇ Espainiako, Frantziako eta Andorrako lurralde mugakideko mendi-inguruneetan bioaniztasunaren kontserbaziorako lankidetzak ahalbidetuz, POCTEFA programari esker.
 - ◇ GALLIPYR, NECROPIR eta ECOGYP proiektuak, hegazti galiformeak eta harrapari nekrofagoak eta horien habitatak zaintzeari zuzendutakoak horiek.
 - ◇ GREEN proiektua, Pirinioetako naturguneen arteko lankidetzarako.
 - ◇ HABIOS proiektua, Pirinioetako hegazti-fauna bioadierazlearen habitatak kontserbatu eta kudeatzeko.

Ondarearen kontserbazioan berritzaile izanda



HORIZONTE
2020

Ikerketa eta berrikuntza

- ◇ COLLECTIONCARE proiektua; kontserbazio prebentiborako zerbitzu berritzaile eta ekonomiko bat sortzea du xede, kultura-objektuak, erakusten, bitartean, manipulatzeko eta garraiatzeko diren bitartean, banaka monitorizatzearen bidez.
- ◇ NANO-CATHEDRAL proiektua, balio handiko monumentu, katedral eta arkitekturen garaiakideko harri narriatuak kontserbatzeko nanomaterial, teknologia eta prozedura berriak garatzeko.

Teknologia berriekin abiatzeko unea zela esan zenuenean



EGF

Teknologia berrietara egokitzeko laguntza

- ◇ Teknologiarekin dituzun zalantzei erantzunez eta irtenbide berritzaileekin lagunduz, teknologiaren gizartea ulertzeko modu berrietara egokitu zaitezten. Enpresa handiek, sindikatuak, GKEek, prestakuntza-zentroak, berrikuntza-zentroak eta erakunde publikoek hartu dute parte, kide europarrekin batera.



Adapt@estatauz
gaindiko proiektua.

EGF

Ikasgela telematikoak: gaituntza teknologikoa landa-munduan

- ◇ Ikasgela telematikoak ezarri zure landa-gunean (Arabako 25 tokitan) Internet bidezko komunikazio telematikorako sistemak eta tresna informatiko ohikoenak erabiltzen ikasteko, zure gaitasun teknologikoak areagotuz eta, horrela, zure prestakuntza handituz, lana bilatzen laguntzeko zuri.

Lan egiteko
aukerak hobetzen
laguntzen
dizugunean



EGF

Langileak eta langabetuak prestatzeko laguntza

- ◇ Zure prestakuntzan lagunduz langabezia zaudenean, lan-merkatuan nola txertatu bilatzen, arautu gabeko prestakuntza-ikastaroen bidez, laneko beharrak estaltzeko horrela.
- ◇ Etengabeko prestakuntzaren alde eginez zure enpresarako laguntza-programen bitartez, langileen gaikuntza eta birprofesionalizazioa eratzeko.

EGF

Urritasunen bat duten eta gizarte bazterketarako arriskuan dauden pertsonek gizarteratzea eta laneratzea

- ◇ Benetan axola duenari emanez garrantzia; hau da, zuri. Gizartean zure autonomia, integrazioa eta parte-hartzea indartuz. Bazterketarako arriskuan dauden prestakuntzaren aldeko apustua eta segimendu soziolaborala eginez, eta horiek lan-merkatuan txertatzea eraginez.

Arabako Foru Aldundiaren eskutik, Arabako Caritasen, SARTUren eta Ireki Bideak-Beti Gizartean Fundazioaren laguntzarekin eta IRSE.

Europar
Batasunaren
inguruan gehiago
jakin nahi
duzunean



EB

Europe Direct Araba: Europari buruzko informazio-bulegoa

- ◇ Europar Batasunari buruzko informazio-bilaketan lagunduz.
- ◇ Europar Batasunaren eguneroko jardueraren berri emanez.
- ◇ Europe Direct Arabak antolatzen dituen dibulgazio-jardueretan parte hartuz.

Proiektuen finantzaketa europarra ulertzeko:

EB

Europako Batzordea

Europar Batasuneko organo exekutiboa, horren interes orokorraren alde egiten duena.

KOHESIO

Kohesio Funtza

Per capita, Europa Batasuneko batez besteko errentaren % 90etik beherako nazio-errenta gordina duten estatu kideei dago bideratuta. Desparekotasun sozioekonomikoak murriztea da horren xedea, eta garapen jasangarria sustatzea.

EGEF

Eskualdeen Garapenerako Europako Funtza

Horren helburua da kohesio sozioekonomikoa indartzea Europar Batasunaren barruan, eskualdeen artean dauden desorekak zuzenduz.

EGF

Europako Gizarte Funtza

Europak enplegu-sorkuntza babesteko, pertsonei lanpostu hobeak lortzen laguntzeko eta Europa Batasuneko biztanle guztientzako lan-aukerak bermatzeko tresna nagusia.

HORIZONTE
2020

HORIZONTE 2020

EBren Ikerketa eta Berrikuntzako Esparru Programa.

INTERREG

INTERREG

Europar Batasuneko eskualdeen arteko lankidetzaz suspertu nahi duen ekimena. 1989an sortu zen, eta Eskualdeen Garapenerako Europako Funtzak (EGEFk) finantzatzen du.

LIFE
LIFE+

LIFE y LIFE+ programa

Ingurumenari berariaz zuzenduta dagoen finantza-tresna bakarra Europar Batasunean. Ingurumen arloan, garapenari eta politika zein zuzenbidea ezartzeari laguntzen dioten proiektuak finantzatzen ditu.

araba  álava
foru aldundia diputación foral

Europako Gaietarako Zerbitzua
asuntoseuropeos2@araba.eus

EUROPA

Zuri lagunduz

Eraikiz

Zure ondoan egonez

Babestuz

Zu sentituz

Lehengoraturuz

Zu prestatuz

laguntza emanez

Balioa emanez

Egokituz

Apustu eginez

lankidetzan arituz

Batuz

Erantzunez

HEMEN EGON DA

